

Jardueren oroitza-txostena 2015

SABINO ARANA FUNDAZIOA, 2015eko abendua

aurkibidea

1	BEKAK ETA IKERKETAREN SUSTAPENA	02
2	Hermes, PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA	02
3	GOGOETA ETA EZTABAIDA MINTZAGUNEA :: mintegiak eta hitzaldiak	02
4	ZABALKUNDE-LANAK / URTEMUGA HISTORIKOAK	15
5	GAZTERIA	17
6	EUSKARA	22
7	ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGI HISTORIKOA	24
8	EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA	28
9	SABINO ARANA SARIEN EKITALDIA	32
10	BESTE ANTOLAKUNDE ETA ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK	37
11	ZABALKUNDEA/KOMUNIKAZIOA/INFORMATIKA	38
12	LORTUTAKO EMAITZEI BURUZKO IRITZIA	39

1 BEKAK ETA IKERKETAREN SUSTAPENA

1.1. Alberto Onaindiaren gutunak, 1936-1945

Orain dela zortzi urte inguru hasi zen garrantzi handiko lan horri loturik, Vatikanoko (Erroma) agiritegietan eta Estatuko beste agiritegi batzuetan gordetako 4.000 bat agiri batu, eurak transkribatu eta horien gaineko oharak hartu dira. Lan horren xede nagusia dugu Agirre lehendakariaren laguntzaile Alberto Onaindia abadeak 1936 eta 1945 urteen artean idatzitako gutunak berreskuratzea eta abadeak gerra zibilean zein Bigarren Mundu Gerran egindako kudeaketa-lanen berri eskuratzea.

Pazko astean, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiko teknikari bat Erresuma Batuko Agiritegi Nazionalera, Londresko Kew barrutira, eta BBCren agiritegira joan zen Onaindiaren eta Erresuma Batuko Informazio Ministerioaren nahiz BBCren arteko harremanei buruzko agiriak aurkitzeko asmoz, abadea bi erakunde horiekin lanean ibili baitzen Bigarren Mundu Gerrak iraun zuen urteetan.

2 Hermes, PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA



2015eko ekitaldian, Hermes aldizkariaren hiru zenbaki argitaratu ditugu, hain zuzen ere, 49, 50 eta 51. zenbakiak.

Martxoan, 49. zenbakia kaleratu zen, honako izenburu hau zuela: “Shakespeare XXI. mendean. Izan ala ez izan. Ser o no ser”.

Urteko azken hiruhilekoan, argitalpenaren 50. zenbakia dela eta, gai bakarreko aldizkaria kaleratu zen, Sabino Aranaren jaiotzaren 150. urteurrenari eta EAJ alderdiaren sorreraren 120. urteurrenari eskainita.

Hirugarren zenbakia urte amaieran argitaratu da, honako gai hau jorratuta: “Nazioen, eskualdeen eta kultur gutxiengoen esnatzea Europan”.



3 GOGOETA ETA EZTABAIDA MINTZAGUNEA

3.1. “Memoria historikoa eta gertuko inguruneak: egikera onak eta etorkizunerako ikusmuga” mintegia

Memoria Historikoaren arloko erakunde eta elkarteetako adituek eta kideek justizia eta ordaintza aldarrikatu zuten Gerra Zibilaren eta Francoren diktaduraren biktimentzat, Sabino Arana Fundazioak 2015eko otsailaren 6an antolatutako jardunaldi batean.



“Memoria historikoa eta gertuko inguruneak: egikera onak eta etorkizunerako ikusmuga” izeneko mintegi horretan, Sabino Arana Fundazioko lehendakariak, **Juan M^a Atutxak**, hasiera eman zion jardunaldiari “egiaren bilaketa, justizia, ordaintza eta berriro ere gertatuko ez delako bermea” eskatuta.

“Gerra hasi zenetik ia-ia 80 urte igaro direnean –gizaki baten bizitzaren edo hainbat

belaunaldiren bizitzaren parekoa–, gerratik gaurdaino bizirik iraun duten azken lekukoak lege biologiko hutsaren eraginez galtzen ari garenean, bide-bazterrak oraindik ere hilotzez beterik ditugu eta milaka familiak eskatzen digute etxekoak omentzeko aukera izatea duintasunez. Gerra aurreko urteetan, ogia, justizia eta askatasuna aldarrikatzeaz batera, mendeetako zapalkuntzari aurre egiten “ausartu” ziren pertsona horiek guztiek ehortzitako hilobietatik eskatzen digute benetan gertatutakoa argitu dadila, justizia egin dadila, kalteak konpon daitezela eta etorkizunean halakorik berriro ez gertatzeko neurriak har daitezela” adierazi zuen.

Beste alde batetik, goizean zehar izandako hiru mahai-inguruetan, egungo Bizkaiko Foru Aldundiko ahalzun nagusi **Unai Rementeriak** honakoa gogorarazi zuen: “lehenengo frankismoaren errepresioa bertatik bertara eta zuzenean bizi izan zuen belaunaldi hura desagertzeaz dagoela. Gerrako umeek laurogeitaka urte dauzkate eta jadanik ia ez da geratzen gudaririk edo milizianorik bizirik”. Horregatik, Rementeriak premiazkotzat jo zuen “aipatutakoen ahozko lekukotzak jasotzeko ekimenak gauzatzea eta euren oroitzapenen ondare ukiezina ondo gordetzea. Gutxieneko ordaintza lortzeko eta hurrengo belaunaldiei ahanztura utzi ez diezaiegun”. “Orain egin ezean, inoiz ere ez dugu egingo”, azpimarratu zuen.

Aranzadi Zientzia Elkarteko **Lourdes Herrasti** arkeologoak Memoria Historikoaren mugimenduaren jardueri buruzko laburpen zabal eta dokumentatua egin zuen, hasi zenetik, hau da, 2002. urtetik, gaur egunera arte.

Lurpetik egindako ateratzeei dagokienez, luze jo zuen estatu osoan egin diren halako 400 baino gehiago zenbatzen eta estatistikoki datatzen, baina “arazoaren gizarteratzea” azpimarratu zuen bereziki. Ildo horretan, esan zuen “Oroimen Historikoa ez dela bakar-bakarrik biktimen eta haien familiartekoen ardura, gizarte osoarena baizik”.

Hitzaldiaren amaieran, Herrastik nabarendu zuen “2002. urtetik aurrerapen handiak egin direla eta pertsona askok parte hartu dutela biktimen duintasuna azaleratzen eta arazoa gizarteratzen”.

Emilio Silva Memoria Historikoa Berreskuratzeko Espainiako Elkarteko (ARMH) presidenteak errepresio frankistaren biktimen memoria hartu zuen hizpide, Francisco Franco diktadorea hil zenetik gure garaiotara. Silva apurka-apurka aletzen joan zen biktimek hainbeste urtean jasan duten isiltasuna, iragan horren kalteak ordaintzeko politika publikoen gabezia eta memoria berreskuratzeko mugimendua; azkena mende berriarekin hasi zen



eta biktimen kausa politikarien agendan eta nazioarteko erakundeetan txertatu du. Gainera, justizia unibertsalaren printzipioa aplikatzea ahalbidetu zuen, esaterako, 2010eko apirilaren 14an, Memoria Historikoa Berreskuratzeko Espainiako Elkartek kereila bat jarri zuela Argentinako Justiziaren aurrean.

Jordi Palou Loverdos jauna, Kataluniako Generalitat-eko Memorial Democràtic, erakundeko zuzendaria “memoria plural eta inklusiboez” mintzatu zen, memoria ez-pluralez eta ez-inklusiboez ondo bereizita. Azken horien adibide dugu “Valle de los Caídos” deritzon hori, Franco jeneralaren diktadurapean egindako politika publiko negargarriaren erakusgarri bikaina”.

Palou Loverdos-ek azpimarratu zuen “behar-beharrezkoa dela indarkeria politikoaren biktima guztiak aitortzea”. Hitzaldiaren amaieran, Kataluniako Generalitateko Memorial Democràtic erakundeko zuzendariak hauxe adierazi zuen: “indarkeria –nirea edo beste batzuen– ezintasunaren agerraldia edo harremanen zein elkarrizketaren bidetik zerbait ez lortzeko beldurraren agerraldi abesterik ez da. Zer dagoen txarto jakin behar dugu, une horretan, egoera hobetze aldera zer egin dezakegun jakiteko”.

Marian Martínez de Pancorbok, Biologia Zelularreko katedradun eta UPV-EHUko BIOMIC's Taldeko ikertzaile nagusiak, DNAz baliatzen den lineako bilatzaile berritzailea aurkeztu zuen. Bilatzaile horri esker, Memoria Historikoak gordeta dituen hil-ondoko gorpuzkinen senideak

aurki daitezke, haien ezaugarri genetikoak jasota daudelako, baina artean identifikatu barik daude, senideak okerreko lekuetan bila ibili direlako.



Aurrekoez gain, honako hauek parte hartu zuten jardunaldian: **Monika Hernando**, Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria; **Ander de la Fuente**, UPV-EHUKo arkeologo, ikertzaile eta irakaslea; **Iñaki García Camino**, Bizkaiko Arkeologi Museoko zuzendaria; **Aitor Miñambres**, Berangoko Burdin Hesiaren Interpretazio Zentroko zuzendaria eta

Sancho de Beurko elkarteko kidea, eta **Iñaki Odriozola**, Elgoibar 1936 elkarteko kidea. Ikus-entzuleei gagozkiela, ia ehun pertsona bertaratu ziren jardunaldira, besteak beste, irakaskuntza, elkartegintza eta euskal erakundeetako ordezkariak, guztiak ere Memoria Historikoa berreskuratzeko lanetan interesdunak.

3.2. “Nazioen, eskualdeen eta kultur gutxiengoen esnatzea Europan. Europar Batasuna, irtenbidea”



Berrogei bat Europar Zuzenbideko katedradun, abokatu, magistratu, analista politiko, Europako Parlamentuko kide eta bestek parte hartu zuten Sabino Arana Fundazioak eta IED (Europako Demokraten Institutua) erakundeak elkarlanean apirilaren 24an antolatutako “Nazioen, eskualdeen eta kultur gutxiengoen esnatzea Europan. Europar Batasuna irtenbidea” izeneko mintegian. Mintegi horretan, Europako eraketaren beraren barruan dauden errealitate nazionalak bizi duten egoera aztertzea izan zuten helburu

“Europa bere historiako funtsezko une batean bizi da. Gu geu bizi gareneko aro global honek dakarzkigun aldaketak ez zitzaizkigun burutik ere pasatzen orain dela denbora labur” esan zuen, Europako Parlamentuko kide **Marc Guerrero i Tarragó** katalanak jardunaldiaren inaugurazio-hitzaldian. Marc Guerrero, era berean, Europaren aldeko Liberalen eta Demokraten Aliantza alderdiko (ALDE party) presidenteordea da.

“Ingurune horrexetan dugu jokoan gure etorkizuna” adierazi ostean, Marc Guerrierok azpimarratu zuen guztion artean lagundu dugula Europak gaur egun esan nahi duena sortzen eta “denok batuta bakarrik gainditu ahalko dugula globalizazioak dakarren erronka larria”. Horretarako, ALDEko presidenteordeak adierazi zuen, “beharrezkoa dela geure burua berrasmatea”.

Elkarretaratze horretara berrogei bat aditu batu ziren, Europako Zuzenbideko katedradun, abokatu, magistratu, analista politiko, Europako Parlamentuko kide eta beste batu ere; besteak beste, **Andoni Ortuzar**, EAJ-PNV alderdiaren EBBko lehendakaria eta Europar Demokraten Alderdiko (EDA-EDP) presidenteordea; **Flaminia**



Baffigo, IEDeko koordinatzailea; **Izaskun Bilbao Barandica**, Europako Parlamentuko kidea; **Jaume Renyer**, Zuzenbideko doktorea eta Rovira i Virgili Unibertsitateko irakaslea; **Xabier Ezeizabarrena**, Zuzenbideko doktorea eta UPV/EHUko Ingurumen eta Administrazio Zuzenbideko irakaslea eta Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Publikokoa; **Johan Häggman**, gutxiengoen hizkuntzak sustatzen 14 urtetik gorako eskarmentua duen aditua eta Europar Batasuneko aholkularia hizkuntza-politikako gaietan; **Vicent Climent-Ferrando**, Hizkuntza Politiken Europako Sarearen aholkulari politikoa eta Pompeu Fabra Unibertsitateko irakaslea; eta **Mikel Antón**, IEDren Zuzendaritza Kontseiluko kidea.

3.3. VIII. Bilboko Elkarriketak. Europa-Latinoamerika. “Demokrazia, subiranotasuna, globalizazioa eta komunitatea. Aldaketa eraldatzaileak eta agertoki berriak”

Sabino Arana Fundazioa eta Europar Demokraten Alderdiak (PDE-EDP) urtero-urtero antolatzen dituzten “Bilboko Elkarriketak. Europa-Latinoamerika” izeneko ekimenaren zortzigarren edizioan, lau gai poliedriko aztertu ziren ekitaldi honetan: demokrazia, subiranotasuna, globalizazioa eta komunitatea.

Parte-hartzaileek bederatzi ordu baino gehiago eman zuten hitzaldietan eta eztabaida-saioetan, irailaren 28an, astelehenarekin, eta irailaren 29an, asteartearekin. Haietan, Latinoamerikako eta Europako politikariek, katedradunek eta hainbat gaietako adituek eztabaidan aritu eta gogoeta egin zuten XXI. mendearen barruan komunitate bietan ala bietan gertatzen ari diren aldaketa eta agertoki berrien inguruan.



Illo horretan, adituak bat etorri ziren Europak globalizazioaren eta nazioaren subiranotasunaren arteko erpinean kokatzeko arriskua duela, hau da, “gehiengoan aurkako” erakundeek arrakasta izan dezaketen gunean edo, bestela esanda, aukeratu ez, baina erabakitzen duten erakundeen gunean. Beste alde batetik, adituek “neurri ekonomiko

konstituzionalizazioaren arriskuaz” ohartarazi zuten, gertaera horrek, hein handi batean, gobernuen ahalmena murrizten duelako. Azkenik, adituek ohartarazi zuten “despotismo bigunak” dakarren arriskuez; izan ere, gizarte-ongizatearen maila onargarria eta prozedura demokratikoen erritualismoa bermatzen diren artean, erabaki handiak esparru demokratikotik baztertuko dira. “Horregatik eta horren aurka jarduteko sortzen dira subjektu edo alderdi berriak” azaldu zuten adituek.

Amaitzeko, komunitatearen gaia ere jorratu zen elkarriketetan; gai horretan, adituen iritziz, “abegikortasun unibertsala eta nahitaezkoa sortu behar dugu”.

Xabier Aierdik koordinatutako ‘VIII. Bilboko Elkarriketak. Europa-Latinoamerika’ izeneko jardunaldi horietan, besteak beste, honako hauek parte hartu zuten: **István Hegedüs**, Magyarországi Európa Társaság / Hungarian Europe Society (Hungaria) erakundeko presidentea; **Victor Maldonado**, PDC alderdiko idazkari nagusi ohia, Barne ministroaren aholkulari seniorra; **Daniel Innerarity**, Politika eta Gizarte Filosofiako katedraduna, Ikerbasque erakundeko ikertzailea UPV/EHUn eta Globernance antolakundeko zuzendaria; **Vilmar Rocha**, Goias (Brasil) estatuko Ingurumen, Ur Baliabide, Azpiegitura, Hiri eta Gai Metropoliarretako idazkaria; **Antonio Carámbula**, *Uruguay XXI*, Uruguaiako ondasun eta zerbitzuen inbertsioak eta esportazioak sustatzeko Agentziako zuzendari eragilea; **Oscar Ensínck**, ACEP (Herri Azterlanen Elkarre Zibila) antolakundeko presidentea—Buenos Aires (Argentina) probintziako Ekoizpen Ministerioko kidea; **Eugenio del Río**, Politikako analista

eta idazlea; **Gutenberg Martínez**, Miguel de Cervantes Unibertsitateko errektorea, Diputatuen Ganberako presidente ohia, Txileko Alderdi Demokrata Kristauko presidente ohia eta ODCako (Amerikako Erakunde Demokrata Kristaua) presidente ohia; **Ignacio Sánchez Cuenca**, Carlos III Unibertsitateko Gizarte Zientzietako Carlos III-Juan March Institutuko zuzendaria eta Politika Zientziako irakaslea; **María Silvestre**, Deustuko Unibertsitateko Politika Zientzia eta Soziologiako doktorea; **Imanol Zubero**, Soziologiako doktorea eta UPV/EHUKo irakasle titularra; **Izaskun Bilbao**, Europako Parlamentuko diputatua; **Gurutz Jauregi**, Euskal Herriko Unibertsitateko Konstituzio Zuzenbideko katedraduna; **Patxi Lanceros**, Deustuko Unibertsitateko Politikaren Filosofia eta Kulturaren Teoriako irakaslea. EAJ-PNV alderdiaren Euzkadi Buru Batzarreko lehendakariak, **Andoni Ortuzarrek**, jardunaldien amaiera-ekitaldia eman zuen.



3.4. “Zigor-arloko Zuzenbidea ETaren amaieraren aurrean: Europako Zuzenbidea eta oinarritzko eskubideak”

ETak jarduera armatuari behin betiko utziko ziolako iragarpenaren laugarren urteurrena bete dela eta, Sabino Arana Fundazioak beste mintegi bat antolatu zuen urriaren 20an epaile, magistratu, fiskal, zigor-zuzenbidean aditutako abokatu, politiko eta akademikoekin. Horko horretan, egungo egoera aztertu zuten giza eskubideen eta oinarritzko eskubideen inguruan, Europar nahiz Espainiako estatuan, ETarik gabeko ingurumari horren barruan.



Mintegian, besteak beste, honako hauek jardun zuten hizlari: **Cándido Conde-Pumpido** jauna, Auzitegi Goreneko Bigarren Salako magistratua eta Estatuko fiskalburu ohia; eta **Alejandro Saiz Arnaiz** jauna, Pompeu Fabra Unibertsitateko Konstituzio Zuzenbideko katedraduna.

Mintegian, berrogeita hamar bat epaile, magistratu, fiskal, zigor-arlo abokatu, politikari eta irakaslek parte hartu zuten.

Conde-Pumpidok onartu zuenez, atentaturik gabeko “aldi berri honetan, espetxe-politika kudeatzeko hainbat era egon daitezke”. Horrela, bada, aipatu gabe ere, leheneratze-justiziaren alde agertu zen, hots, zuzenbide-mota hori aplikatzen deneko testuinguru zehatza kontuan hartzen duen justiziaren alde. Bestetik, Conde-Pumpidok ETaren iragana ez “erlatibizatze” eskatu zuen, ingurumari berria erraztu eta bakean bizi ahal izateko etorkizuna finkatzeko helburuz.

3.5. “Paradigma aldaketa Garapenerako Nazioarteko Lankidetzan”

Izenburu horren harian, 2013. urtean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin elkarlanean, hurrengo urteetan gauzatzeko hainbat mintegi eta hitzaldi antolatu genituen, nazioarteko lankidetzaz-fluxuak munduko testuinguru berrian hartzen diren joera nagusiez jakiteko helburuz.

Hala, 2013an, eragile sortu berrien eginkizuna aztertu genuen, honako izenburu honen pean: “Mundu berri bat, arau berriak, aktore berriak”. 2014an, berriz, ekimenaren bigarren edizioan, haxe izan zen topagunearen izenburua “Nola eta zergatik esku hartu errenta ertaineko herrialdeetan”.

Aurten, 2015eko ekitaldian, ekimenaren hirugarren edizioa izan da izenburu hau erabilia: “Lankidetzako joera berriak”.

Gaia aztertzeke, bi hitzaldi eman zituzten **Enrique Ganuzak**, ekonomialari, Suediako Gobernuako funtzionario ohi, Nazio Batuen Garapen Programako (NBGP) arduradun eta Nazio Batuetako funtzionario ohiak, eta **Francesco Biciatok** NBPGko ART programaren arduradunak.

Enrique Ganuzaren ustez, “Garapenerako Laguntza Ofizialaren (GLO) guztizko bolumena geratu egin da azken urteotan. Ildo horretan, adierazi du “oso gutxi direla Ekonomia Lankidetzaz eta Garapenerako Erakundearen (OCDE) Garapenerako Laguntza Batzordeak ezarritako gomendioak betetzen dituzten herrialdeak”.



Orobat, Ganuzak GLOri eusten dioten gaur egungo egikera berritzaile batzuk azaldu azaldu zituen eta ondokoa adierazi zuen: “herrialde emaille nagusietan, GLO gero eta gehiago lerratu da kanpo-politikaren lehentasunetara”; beste alde batetik, nabarmendu zuen joera garbi bat antzematen dela, honakoa, hain zuzen ere: “barne indar politikoen arteko akordio zabalen, horien parlamentuen engaiatze garrantzitsuaren eta gizarte zibilaren parte-hartze zabal baten arteko uztardura”.

Ganuzaren iritziz, “azken hamar urteotan GLOaren transferentzia justifikatzen duten zioen artean, honako hauek nabarmen gailendu direla: laguntza jasotzen duten herrialdeen gobernagarritasun demokratikoa kontuan izatea, haien erakundeak finkatzea, gardentasuna eta herrialdeok darabilten kudeaketa publikoaren zintzotasuna”.



Hitzaldia amaitzeko, Enrique Ganuzak ondokoa adierazi zuen: “Milurtekoko Garapen Helburuen gaineko nazioarteko akordioak eragin izugarria izan zuen nazioarteko lankidetzan, 2000-2015 epealdian; honezkero, 2015etik aurrerako Garapen Iraunkorraren Helburu berrien negoziaketa arrakastatsua eta helburu horien ezarpen eraginkor eta eragingarria erabakigarriak izango dira

GLO behar bezala bideratzeko hurrengo urteetan.

Beste alde batetik, Nazio Batuetako Garapenerako Programaren (NBGP) ART ekimenaren arduradunak, **Francesco Bicciatok**, zera esan zuen: “azken urteotan, funtsezko aldaketa bat gertatu da, hau da, Hegoaldeko herrialdeen gorakada. Garatzeko bidean dauden herrialdeak

dira, funtsean, Latinoamerikakoak eta Asiakoak, eta gainera, Hegoa-Hegoa hobesten duen lankidetzaren modua ari dira garatzen. Eta herrialdeen arteko harreman geopolitikoak aldatzen ari diren ingurumari horretan, nazioarteko lankidetzak ere egokitu beharra dauka. Ildo horretan, joeretako bat dugu lurralde-lankidetzaren, lankidetzaren deszentralizatua, hain zuzen. Esan nahi da, oraingo lankidetzaren ez da mugatzen gobernuen arteko alde biko lankidetzaren, ezta alde askoren arteko ere (Nazio Batuak, EB, Nazioarteko Diru Funtza...). Horiek horrela, lurraldeek funtsezko eginkizuna dute lankidetzaren-mota horretan”. Biciatoki Asiako herrialdeek izan duten hazkunde ikaragarria nabarmendu zuen, besteak beste, Indiak, Txinak edo Vietnamek.

Biciatoki eta Ganuzaz gain, jardunaldien hirugarren edizio horretan, ondokoek parte hartu zuten, besteak beste: **Paul Ortega**, Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria; **Ruper Ormaza**, UNESCO Etxeko presidentea; **Marcelle Mardon**, arkitektoa eta Euskadi-Afrikan lankide boluntarioa; **Rafael Ferrer**, Zabalketa elkarteko presidentea; **Elsa Fuente**, Euskadiko UNICEF erakundeko koordinatzailea; **Bernardo García**, Anesvad antolakundeko zuzendaria; **Eneko Gerrikabeitia**, Mundubat fundazioko zuzendari nagusia; **Iñigo Iriarte**, Goicouria fundazioko zuzendaria; **Arantza Acha**, UNESCO Etxeko zuzendaria; **Teresa Querejazu**, Etorkintza fundazioko presidentea; eta **Juan Carlos Vazquez**, KCD elkarteko zuzendaria.



Noé Cornagok, UPV-EHUko Nazioarteko Lankidetzaren Deszentralizatuko Masterreko zuzendariak, moderatzaile jardun zuen hitzaldietan.

3.6. “TTIP: ingurumariak, aukerak, mehatxuak. Hitzarmenak gure gizartean daukan eragina”

Europa eta Amerikako Estatu Batuen arteko Merkataritza eta Inbertsiorako Hitzarmenari (TTIP ingelesezko akronimoz ezaguna) lotutako negoziazioak 2013ko uztailan abiatu ziren eta oraindik ere ez dira amaitu. Izan ere, negoziaketaren hasieran iragarritakoa baino astiroago eta korapilatsuago gertatzen ari da, egiatan, Europar Batasunak eta AEBek merkataritza askeko itun bat baino askoz gehiago negoziatzen dihardutelako. Aurreikuspenei jarraiki, nazioarteko hitzarmen horrek prest egon behar zuen 2015. urtearen amaieran, baina segurutik, ez da 2017ra arte argitaratuko, EBko 28 parlamentu nazionalak eta Europar Batasuneko Parlamentuak oniritzia emanaz gero.



Sabino Arana Fundazioak eta Europar Demokraten Institutuak (IED) *“TTIP: ingurumariak, aukerak, mehatxuak. Hitzarmenak gure gizartean daukan eragina”* gaiaz eztabaidatzeko jardunaldia antolatu zuten azaroaren 27an, Bilbon. Europako Parlamentuko kide **Izaskun Bilbaok** koordinatutako jardunaldi horretan, **Christian Burgsmüller** jaunak, Europako Batzordeko Merkataritza komisario **Cecilia Malmström** andrearen kabineteko kideak, **Juan José Álvarez** jaunak, UPV-EHUKo Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko katedradunak; **José Ramón Mariño** jaunak, ekonomialaria eta Espainiako ATTAC erakundeko TTIP delakoaren Batzorde Nazionaleko kideak; eta **Jesús Martínez Ons** jaunak, IBMko Erakunde Harremanetarako zuzendariak parte hartu zuten.

Christian Burgsmüller-en aburuz, Europako enpresek hartuko luketen onurarik handiena haxe litzateke: *“hitzarmenak areago zabalduko lieke Estatu Batuetako merkatu oparoa Europako enpresei. Hala, Europako produktu gehiago eta orain baino errazago sartuko lirateke Estatu Batuetara, egun erabiltzen den merkaturatzeko modua korapilatsuagoa baita, aduana-zerga eta zehaztapen teknikoak direla eta. Ildo horretan, munduko merkataritza-arloko bi erraldoiak bat etorriko balira arau erkideetan, gainerako herrialdeak horietara egokitu beharko lirateke eta egoera berria onuragarria izango litzateke”.*

Arriskuei dagokienez, berriz, Burgsmüller-ek haxe azaldu zuen: *“ez legoke arriskurik Europako osasun, ingurumen, lan-eskubide eta abarren estandarrei gagozkiela, horiek guztiek lehengo moduan jarraituko luketelako. Dena dela, Europako enpresek merkatuko kuota gal lezake Europako Batasunean bertan; izan ere, zuk zeuk beste herrialde batek bere merkatua zabaltzea nahi baduzu, zurea ere zabaltu beharko duzu. Horrela, gerta liteke enpresa estatubatuarrek modu lehiakorragoan saltzea Europan. Euskal enpresak ziur daude guztiz lehiakorrak direla zeinek jarduten duen sektore nagusian eta, horregatik, ez dira*

Estatu Batuetako lehiakideen beldur. Bestalde, euren ustez, etekinak aterako lituzkete Amerikako merkatuan”.

UPV-EHUko Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko katedradun Juan José Álvarez en iritziz, negozioazio horretan “Europako gizarte-eredua kolokan dago: kontsumitzaileen babesa, osasun-arloko estandarren babesa, elikaduraren segurtasuna, finantza-zerbitzuen erregulazioa, zerbitzu publikoen izaera edo ingurumen-babeseko ereduak, besteak beste, kolokan daude”. Horregatik, “hitzarmen bat gaitzestea zein goraipatzea informazio guztiguztia —zehatza eta letra txikiz idatzitakoa ere bai— eskueran eduki barik, ustea edo irizpena arinegi ematea da.



Juan José Álvarez en aburuz, “bertan parte hartzen duten interesen arteko orekan datza giltzarria. AEBek eta bertako enpresek, nazioarteko negozioetan aritzeko berezko

pragmatismotik eratortzen den indar edo kemena lagun, ahaleginak eta bi egiten ari dira TTIP hitzarmena sinatzeko, hau da, nazioarteko kultura berria ekarri eta babestuko duen Itun edo Hitzarmena sinatzeko. Hitzarmenak arauen eta praktiken katarsia sorraraziko du merkatuetara sartzeko moduetan eta merkataritza-trukeak bideratzeko arau orokorren erregulazio eta antolamenduan Atlantikoaren alde bietan. Giltzarria, esan bezala, aginduzko marra gorriak ezartzean datza, ezin gaingiduzkoak izan beharko luketenak merkatuen askatasunaren aitzakiaz”.

Beste alde batetik, hitzarmen horrek ekarriko omen dizkigun arriskuez ohartarazteko eratu den Espainiako ATTAC erakundeko TTIP delakoaren herri mugimenduko kide Laura Ruizek honakoa esan zuen: “azkenean, herritarrak bizimoduaren alderdi asko-askotan igarriko luke”. Ildo horretan, besteak beste, nekazaritzan, ingurumenean, produktu kimikoetan, elikaduran, finantza-erregulazioan eta lan-baldintzetan sortuko liratekeen arriskuak eta mehatxuak aipatu zituen. “Europar, esate



baterako, substantzia edo gai kimiko bat segurua dela frogatu behar da gai hori erabili baino lehen, baina AEBetan ez da aplikatzen aipatutako printzipioa. Elikadurari buruzko segurtasun-arauak askoz zorrotzagoak dira Europan eta, horregatik, elikagai transgeniko, nahiz pestizidez, hormonez, kloroz eta abarrez kutsatutako elikagaien inportazioak galgatzten ditu Europak, AEBek ez bezala

Finantzen ekonomiak ekarri digun krisialdian murgilduta gaudela, arlo horretako erregulazioak apaldu nahi dira. Eta hori egingo balitz, zerbitzu publikoen pribatizazioak ez luke mugarik izango: ura, osasuna, hezkuntza... Gainera, AEBekiko merkataritza-trukea areagotuko balitz, sektore industrial ahulduenak shocka pairatuko lukete hasieran eta industria berregituratu beharko litzateke”, argudiatu zuen.

Azkenik, IBMko Erakunde Harremanetarako zuzendari Jesús Martínez Ons jaunaren ustez, hitzarmenak “ez du berebiziko eraginik izango langileen lan-baldintzetan. Europan bertan ere, 28 estatu kideek autonomia dute lan-baldintzak arautzeko orduan”. “Ez dago inolako arrazoirik TTIP ezarrita beste modu batean egingo dela pentsatzeko”, adierazi zuen.

“Industriak hitzarmenaren aldeko apustu garbia egin duela” nabarmendu zuen IBMko ordezkariak. Haren iritziz “ez gara AEBetako ekoizpenaren, ez lehiaren, beldur izan behar”.

Hitzarmenaren balioa aldezteko xedez, Espainiako ugazaberiak aspaldi ez dela argitaratutako ikerlan bat aipatu zuen Martínez Onsek. “Ikerlan horretan ondorioztatzen denez, bi sektorek –automobilgintza eta garraioak– izan ezean, gainerako guztiek gora egingo zutela” azpimarratu zuen. Azterlan horren arabera, Espainiako BPG % 0,1 eta % 0,73 artean igoko litzateke.

3.7. “Britainia Handiko seme-alabak. Erresuma Batuari buruzko gogoeta” hitzaldia



Alberto Letona idazle eta kazetariak bi urte eman ditu Eskozian bizi izaten eta beste bi Ingalaterran. Bere esperientzian oinarri harturik, hitzaldia eskaini zigun apirilaren 23an eta, bertan, britainiarren zakuan ondoen gordetako sekretuetako batzuk jakinarazi zizkigun: gizarte-mailak, askotariko nortasun nazionalak, hezkuntza, erlijioa, hedabideak, euren grina aitorgarriak eta beste.

Alberto Letona komunikazio-aditua da eta ondo baino hobeto ezagutzen ditu Britainia Handiko Erresuma Batua osatzen duten herriak. Bertan jaiotako emakume batekin ezkondata dagoela, azken lau urte hauetan Letonak Euskadin gertatu direnen inguruko informazioa ere zabaldu du han BBC hedabideko mikrofonoetatik.

- 4.1. 2015. urtean, Sabino Aranaren jaiotzaren 150. urteurrena ospatu dugu eta, urtemuga hori dela eta, argazkien eta dekorazio-artearen funtsak jarri ditugu gertaera gogoangarri horri lotuta antolatu diren jardueren esku.

Arlo horri gagozkiola, gaur arte ia dozena bat hitzaldi egin da honako izenburu honekin: “Sabino Arana: aberriaren sortzailea eta ikurrina”.

Era berean, Bigarren Mundu Gerraren amaieraren 70. urteurrena ospatu dugu eta “Gernika” eta “Libertad” batailoiei omenaldia egin genien Pointe de Grave lurmuturrean (Côte 40, Soulac Sur Mer eta Rétaud), Ponte de Graveko borrokaldian parte hartu baitzuten.



“Gernika” batailoiko gudariak, “Libertad” batailoia osatzen zuten anarkista katalan eta espainolek eta somaliarrez, magrebtarrez eta frantsesez osatutako beste unitate batzuek Pointe de Graveko borrokaldian parte hartu zuten Bigarren Mundu Gerraren amaieran. Eta gertaera hura gogoratzeko, gudarien ehunka familiakide eta lagun izan ziren oraindik ere bizirik dirauen **Francisco Pérez Luzarreta** gudariaren alboan, apirilaren 18an egin genuen omenaldian, Vendays-Montalivet-eko (Akitania) 40ko kota izeneko lekuan.



Eusko Jaurlaritzako lehendakaria, **Iñigo Urkullu** jauna, eta Akitaniako Kontseiluko presidentea, **Alain Rousset** jauna, buru izan ziren ekitaldian eta, gainera, Euskadiko eta Akitaniako erakundeetako hainbat agintari joan ziren bertara.

Geroago, Soulac-sur-Mer udalerriko hondartzara joan ginen eta, lagunarteko ekitaldi batean, Francisco Pérez Luzarretak lore-eskaintza egin zuen hildako guztien omenez altxatutako monumentuaren aurrean. Monumentu horretan, bost euskal gudarien izenak ere idatzita daude. Larunbat horretako ekintzak amaitzeko, bisita gidatuta egin genuen euskal gudariak askatutako bunkerretatik zehar.

Apirilaren 19an, berriz, igandearekin, Rétaud udalerriko hilerrira joan ginen, bost gudariak bertan lurperatuta daudelako eta han beste lore-eskaintza bat egin genuen.

4.2. *Gernika* batailoiko gudariei egindako omenaldien ingurumarian, ekainaren 6an, bunkerren aztarnetan eta Luzero lurmuturreko (Zierbena) baterian, gerra-gatazka baten berregite historikoa grabatu zen Bizkaian lehen aldiz, ikusleak ere bertan izan zirela. Hain zuzen ere, Gernika batailoiko gudariek 1945eko apirilaren 19an soldadu naziei Pointe de Graveko borrokaldian (Soulac sur Mer-Médoc eskualdeko iparraldean) Bigarren Mundu Gerraren amaiera aldean, kendutako Arroseko gotorlekuaren gaineko gertaera filmatu zen.

Berregite historiko horretan, Sancho de Beurko eta Enigma elkarteetako 500etik gora berregile, figurante eta aktorek parte hartu zuten. Sancho de Beurko elkarteak berak antolatu zuen berregitea eta Zierbenako Udalak, Enkarterrek, Baleuko ekoizpen-etxeak eta Sabino Arana Fundazioak, besteak beste, lagundu zuten. Baleukok filmatutako eszenak baliatu ziren euskal ekoizpen-etxea egiten ari zen Gernika batailoari buruzko dokumentala osatzeko.



Bestetik, urriaren 7an, Baleuko ekoizpen-etxeari lagundu genion “Gernika batailoia, askatasun itxaropena” izeneko dokumentalaren aurkezpenean, Gernikan.

Azkenik, urriaren 9an, “Zinema eta Oroimena. Historia zinemaren begiradatik ikusita” izeneko jardunaldian parte hartu genuen Baleuko ekoizpen-etxearekin batera. Jardunaldi horretan, historialariek eta zinema-zuzendariak mahai-inguru ireki

batean parte hartu zuten iragan historikoaren ikerketa eta oroimenaren gizarte-zabalkundea zelan uztartu aztertzeke asmoz.

Jardunaldian ondoko zinema-zuzendariak parte hartu zuten: **José M^a Tuduri**, **Helena Taberna**, **José A. Zorrilla**, **Mikel Rueda** eta **Iban González**; eta ondo historialariek: **Josu Chueca** eta **Iñaki Goigana**. Mahai-inguruan, **Sonia Hernando** kazetariak jardun zuen moderatzaile.

Aurrekoez gain, nabarmendu behar ditugu Sabino Arana Fundazioko historialari Iñaki Goiganak Bordelen, Luzero lurmuturrean, Gernika, Galdakaon eta abarretan emandako hitzaldiak eta aurkezpenak Gernika batailoia parte hartutako gertaeran testuingurua azaltzeko, bai eta Luis de Guezalak Sabino Arana eta EAJ-PNV alderdiari buruz emandakoak ere.

5 GAZTERIA

5.1 “Balía itzazu zeu baliogabetu barik: gaurko jolasak, biharko ikasbidea” jardunaldiak

DBHn, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan ikasten duten 400 gazte inguruk parte hartu



zuten aurten “Balía itzazu zeu baliogabetu barik. Internet + Sare Sozialak” izeneko jardunaldien 6. edizioan. Sabino Arana Fundazioak eta Euskaltelek antolatu zituzten jardunaldiok elkarlanean eta, edizio honetan, batetik, “gaming” edo “gamifikazioa” deritzon joerak gaur egun daukan garrantzia jorratu zuten eta, bestetik, gamifikazioak neska-mutilei etorkizunean ekar diezazkiekeen lan-aukerak aztertu zituzten. Jardunaldiak azaroaren 10ean eta

11n izan ziren.

“Gaming” edo “gamifikazioa” puripuriko gaia dugu gaur egun. Gamifikazioa izeneko lan-arloa jolas-teknika eta -moldeak baliatzean datza jolasari lotzen ez zaizkion esparruetan eta, apurka-apurka, arrakasta handiz hedatzen ari da hainbat sektoretan, besteak beste, hezkuntzan, giza baliabideetan, turismoan, medikuntzan eta, batik bat, marketinean. Jardunaldi horietan parte hartzen duten adituek joera berrien berri emango diete ikasleei eta gamifikazioa enpresaren esparruan gero eta gehiago erabiltzearen zergatia azalduko diete.



Era berean, EU Kids Online izeneko Europako ikerketa-egitasmoaren arduradunek azken emaitzak aurkeztuko dizkigute gai honen inguruan: zelan moldatzen diren adingabeak Interneten eta zer-nolako arriskuak har ditzaketen saretik barrena nabigatzean.

Hala, hilaren 10ean (euskarazko jardunaldia), Begoñazpi ikastola (Bilbao), San Félix Ikastetxea (Ortuella), Zallako institutua (Zalla), Deustuko ikastola (Bilbao) eta Mesedetako Ama ikastetxea (Leioa) ikastegietako 300 ikasle inguruk bizipenak eta ezaupideak partekatu zituzten honako hauekin: **Leire Armentia**, Virtualware Group enpresa-taldeko Training eta Hezkuntza arloko zuzendaria eta proiektu-zuzendaria; **Estefanía Jiménez**, Ikus-entzunezko Komunikazioko doktorea, UPV-EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irakaslea eta EU Kids Online Spain taldeko kidea; eta **Pilar Kaltzada**, kazetaria eta identitate digitalean aditua. Azkena moderatzailea izan zen

Hurrengo egunean, hilaren 11n (gaztelaniazko jardunaldia), ordu berean, Barakaldoko Salestarrak eta San Pelaio (Ermua) ikastetxeetako ikasleek ondokoen azalpenak eta gomendioak entzuteko aukera izan zuten: **Leire Armentia** eta **Miguel Ángel Casado**, UPV-EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irakasleak eta EU Kids Online Spain taldeko kideak; haiekin batera, **Iker Merodio**, kazetaria eta identitate digitalean aditua, aritu zen moderatzaile gisa.

5.2 Ikastaro didaktikoak eta ahozko historiari buruzkoak

Artxandape Ikastolako neska-mutilek Museoen Nazioarteko Eguna ospatu zuten Goaz Museum - Euskal Abertzaletasunaren Museoa

Artxandape ikastolako Lehen Hezkuntzako laugarren mailatik seigarren mailara arteko berrogeita hamar bat ikasleek ospatu zuten maiatzaren 18a, hots, Museoen Nazioarteko Eguna, Sabino Arana Fundazioaren Goaz Museum - Euskal Abertzaletasunaren Museoa. Bisitaldian, ikasleek ganbera ilunaren esperimientua egin zuten Nai Gallego argazkilariaren eskutik



Etxeko gaiak erabiliz (kartoizko kutxa birziklagarria, paper begetala, lupa bat...) neska-mutilek ohiturazko argazki-makinen printzipioetako bat aztertu zuten: leku argitsu batean dagoen argia zulo txiki batetik barrena eremu ilun batean sartzen denean, sortutako irudia alderantziz agertzen da. Artista txikiak harri eta zur geratu ziren mundua iruntzitarra ikusita. Segurutik, batek baino gehiagok ikertzen jarraitu nahi izango du eta gehiago jakin gura izango du argazkilaritzaren mundu zoragarriaz.

Hama Beads ikastaroa

Artxandape ikastolako Lehen Hezkuntzako berrogeita hamarretik gora ikaslek parte hartu zuten bi *Hama Beads* ikastarotan, abenduaren 10ean. Sabino Arana Fundazioak antolatu zituen ikastarook fundazioaren egoitzan.



Hama Beads direlakoak plastikoz egindako pieza zilindriko txikiak dira, hainbat koloretakoak, eta haiek erabiliz, eite eta irudi sinpleak, giltzatakoak, zintzilikarioak, eraztunak edo baso-azpikoak egin daitezke, hainbat diseinuri jarraiki. Pieza txiki horiek 'Pegboard' izeneko xafla baten gainean kokatzen dira, diseinua egiteko (xaflak elkartu daitezke diseinu handiagoak egiteko). Xafla lisatuz gero, piezek bat egiten dute eta guztiz finkaturik geratzen dira.

Hama Beads ikastaroa teknika modernoak erabiliz garatzen da, baina bertan 30eko hamarkadako ikonografia eta orduko postalak baliatzen ditugu eskuz egindako Gabonetako zorion-txartelak lantzeko; hala, antzinakoa berreskuratze modua ematen digu jarduera honek, gure aurretikoek erabiltzen zituzten irudiak erabiliz, baina euskarri berritzaile eta guztiz gaurkoaren gainean.

Gabonetako postalen ikastaroa, Antton Irustaren eskutik

Gabonak etorri orduko, teknologia berriek atzean uzten ari diren tradizio bati eutsi nahi izan genion.

Horretarako, ikastaro bat antolatu genuen Gabonetako txartel edo postalak eskuz egiteko, diseinu originalak eta eskuz idatzitako testuak erabilita, halakoak ilusio handiz hartzen baititugu etxeko postontzian, ez Facebook, Twitter edo WhatsApp-eko ontzietan. Artxandape ikastolako DBHko 5. eta 6. mailako ikasleek lau ikastarotan parte hartu zuten abenduaren 17an Antton Irusta irudigilearen laguntzaz, eta horietan, Gabon sasoian gure familiakoei eta lagun minei sentimendu eta gogo onez oparitzeko bitxi ederrak landu zituzten.



Atal honetan aipatutako ikastaroetan, hau da, *Hama Beads* ikastaroan eta honako honetan, Sabino Arana Fundazioan gordetako postalak eta beste material batzuk erabili genituen eredu gisa. Francoren sasoiko kartzeletan preso zeudenek egindako txartelak dira eta haien familiakoek eman dizkigute dohaintzan.



5.3 *Euskal abertzaletasunaren erronkak: Ekonomi Ituna eta Kupoa* jardunaldia

Gaztepolis Gazte Elkartek antolatuta, “Euskal abertzaletasunaren erronkak. Ekonomi Ituna eta Kupoa” izeneko jardunaldiak egin ziren Sabino Arana Fundazioaren egoitzan azaroaren 20an eta 21ean.



Lehenengo egunean, UPV-EHUko Historia Garaikideko doktore Eduardo J. Alonso historialariak Ekonomi Itunaren historia aletu zuen eta gaur egun indarrean dagoen legeriaren giltzarriak azaldu zituen.

Hurrengo egunean, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza ahaldun José M^a Iruarizagak “Kupoarejn gako teknikoak” azaldu zituen eta, azkenik, Justizia sailburu eta Eusko Jaurlaritzako bozeramaile Josu Erkorekak “Aldarrikapena eta eztabaida politikoa” izeneko hitzaldia eman zuen.

5.4 EGirekin antolatutako jardunaldiak

Memoria Historikoari buruzko II. jardunaldiak: “EAJ-PNV eta Euskadiko historia: klandestinitatea, lehen Aberri Egunak eta militantzia EGIⁿ”

Fede Bergaretxek, Euskadi barruko Erresistentziaren Kontseilu Nazionaleko presidentek; **Elixabete Bizkarralegorrak**, Ikasle Abertzale Batza (ELA-STV) erakundeko kideak; eta **Emilio Mardarasek**, diktadura sasoiko azken erbesteratu jeltzaleak, parte hartu zuten joan den martxoaren 5ean Memoria Historikoaren II. jardunaldietan. EGIk eta Helduak Elkartek antolatu zituzten jardunaldiok, Sabino Arana Fundazioarekin elkarlanean.



Urtero antolatzen hasi garen jardunaldi horien helburu nagusia iraganari begiratzea da gure nagusien lekukotasunak eta euren bizipenak direla medio, frankismoaren aurkako Erresistentziaren garaian, zuzeneko protagonistak izan zirelako arlo askotan: EGIko militanteak izan ziren, klandestinitatean bizi izan ziren, diktadura garaiko lehen Aberri Egunak antolatzen parte hartu zuten... Horiek guztiek aukera aparta ematen digute oraina ulertzeko eta etorkizunerantz baikortasunez begiratzeko. Azken batean, EAJ-PNV alderdiaren eta Euskadiren gaineko memoria historikoa lantzeko ekimen biribila.

6.1. Euskara Sustazeko Ekintza Plana. “Euskararen batasuna: Sabino Aranaren garaietatik gaur arte”

6.1.1. Denon esku dago euskara biziaraztea euskarari buruzko mintegia

Sabino Aranaren jaiotzaren 150. urteurrenaren harira, apirilaren 17an, “Denon esku dago euskara biziaraztea” jardunaldia antolatu genuen Euskaltzaindiarekin batera. Jardunaldiaren helburua hauxe izan zen: “euskararen hainbat alderdi jorratzea Sabino

Aranaren sasotik hasita, hala nola, XIX. mendearen amaiera aldean eta XX. mendearen hasieran egon ziren hizkuntzarekiko aurreiritziak eta jarrerak zein XXI. mendean dituen ahulguneak, mehatxuak eta aukerak”.

Euskaltzainburuak, **Andrés Urrutiak**; Sabino Arana Fundazioko lehendakariak,

Juan M^a Atutxak; eta Bizkaiko foru diputatuak, **Josune Ariztondok**, parte hartu zuten irekiera-ekitaldian. Horien ondotik, hizlari hauek jardun zuten: **Joseba Agirreazkuenaga** ikertzailea eta euskaltzain urgazlea, **Igone Etxebarria** euskaltzain urgazlea; **Mikel Zalbide** ikertzailea eta **Xabier Kintana** idazlea eta euskaltzaina. Jardunaldian, Euskaltzaindikoko lehendakariordea, **Erramun Osa**, aritu zen moderatzaile.

6.1.2. “Euskara eta gaztelaniaren jatorria: ideologia eta filologia” hitzaldia, Juan Carlos Moreno Cabreraren eskutik

Madrilgo hizkuntzalari eta “*Errores y horrores del españolismo lingüístico. Cinco vocales para conquistar el mundo*” izenburuko liburuaren egile Juan Carlos Moreno Cabrerak apirilaren 29an eskainitako hitzaldian, euskal hizkuntzaren inguruko teoria batzuk azaldu zizkigun. Besteak beste, argitu zigun euskara “Donemiliagako glosetan” agertu zelarik, espainolismo linguistikoa espainiera ere glosa horietan “kokatzen” ahalegindu zela, euskararekin harremanetan jarri eta gaztelaniaren antzinatasunaz harro agertzeko.

Beste teoria baten arabera, Moreno Cabreraren esanetan, euskarak eragina izan zuen gaztelaniaren egituraren eta, horrela, beste hiztun batzuek errazago ikasteko moduko hizkuntza bilakatu zen.

Moreno Cabrerak ia hogeita liburu eta 100 artikulutik gora idatzi ditu aldizkari eta egile askoren arteko argitalpenetan. Egile hau bereziki nabarmentzen da oso kritikoa delako

Espainiako nazionalismoari lotutako ideologia eta mitoen aurrean, eta hizkuntza gutxiagotuen alde egiten duelako, besteak beste, euskararen alde. Iaz, 2014. urtean, Ramón Llull saria jaso zuen hizkuntza guzti-guztien arteko berdintasuna eta duintasuna aldarrikatzeko egin zituen ekarpen akademikoengatik.

6.1.3. “Euskal kultura XXI. mendean. Etengabeko eraberritzea” mintegia/jardunaldia

Sabino Arana Fundazioak eta Bilbao 700 Fundazioak “Euskal Kultura XXI. mendean. Etengabeko eraberritzea” izeneko jardunaldia egin zuten abenduaren 15ean. Jardunaldi horretan, euskal kulturgintza aztertu zen, haren indarguneak eta ahulguneak mahairatu, erronka berriak antzeman... Izan ere, euskal kulturgintza eten barik egokitu da garai berriotara eta horretan dirau XXI. mendean, bizitasun handiz iraun ere. Hori dela eta, arretaz aztertu ziren modernitateak ekarritako erronkak, aro berri honetan norantz jo behar dugun erabakitzeko. Atxagaren *trikuaren metaforak* iradoki bezala, gure kultura aro berrira egokitu ezean, ez du etorkizunik izango.

Jardunaldian, euskal kultura-, hizkuntza- eta gizarte-arloetako pertsona esanguratsuek parte hartu zuten. Imanol Agirrek (Loraldia), Kirmen Uribe idazleak eta Itziar Noguerasek (Elhuyar Fundazioa) jardun zuten hizlari.

7.1. Agiritegian egindako lanak

7.1.1. Funtsak antolatu eta deskribatzea

- o *Esteban Bilbao Egia* agiritegi-funtsa antolatzen hasi gara: 140 fitxa.
- o 285 fitxa erregistratu dira Norbanakoen dohaintzen datutegian.
- o 47 fitxa erregistratu dira Ikus-entzunezkoen datutegian.

Esteban Bilbao Egia funtsa

2015eko ekitaldian, elkarlanari eutsi diogu Euskal Herriko Unibertsitateko Filosofia eta Letren (Historia) Fakultatearekin, eta praktiketako hainbat ikasle hartu ditugu gurean kreditu akademikoak lortzeko edo/eta gurea lako erakunde batean lanean hasteko.

Jasone Beldarrain, 150 ordu emanda, *Esteban Bilbao Egia* (1879-1970) euskal agintari tradizionalistaren agiri-sorta batzuk deskribatzen hasi da. Hain zuzen ere, gutunak eta agintariaren egunerokoak aztertu ditu eta agiriok kutxa eta karpitetan gorde, antolatu, eta erreegistroen deskribapena egin du datutegi informatizatu batean (edukiak, tipologia, egilea(k), deskriptoreak, muturreko datak, signaturak eta abar jasota). Antolatutako bolumena: 29 instalazio-kutxa eta 60 fitxa.

María Galíndez, 500 ordu baino gehiago emanda, Jasonek hasitako lanari lotu zaio, eta funtsa osor-osorik sailkatu du. Hala, laneko denbora gehiena dokumentu nahasi eta eragabeenak antolatzen eman du (agiriok sailkatzen, antolatzen eta deskribatzen), hau da, identifikatzen zailen ziren agiriak sailkatzen. 2015ean, 80 fitxa egin ditu.

Bi ikasleek Agiritegiko teknikari baten zuzendaritzapean jardun dute. Lana gauzatzeko, ordenagailua eta agiritegiak kudeatzeko *Albalá* (Baratz) programa erabili dituzte.

7.1.2. Liburutegiko funtsak

2015eko abenduaren 31n, **42.551** monografiak osatzen dute Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiko liburutegia. 2015eko ekitaldian, **728** ale berri erregistratu dira. Guztizko kopurutik, 31.201 ale Bilboko egoitzan daude eta gainerakoak, hau da, 11.350 ale, Arteako biltegian gordeta daude.

Orain dela urte batzuk hartutako erabakiari jarraiki, Bilboko biltegian ale bakarra gordetzen da lan bakoitzeko, betiere gaia eta edukiak bat badatoz gure liburutegi espezializatuan gordetzeko ezarri ditugun irizpideekin. Gainerako lanak, oro har, Arteako liburutegira eramaten dira (baliozkotzat jotzen dira, bikoiztuta egon arren); bestela, beste toki batzuetara bidaltzen dira.

2015eko ekitaldian, kopuruari begiratuta, ondokoek egindako dohaintzak nabarmendu behar ditugu: Juan María Atutxa, Cuñado familia, Txomin Saratxaga eta Luis Ángel Gaintza.

7.1.3. *Uzturre* hemeroteka

Urte osoan zehar jaso diren aldizkako argitalpenen aleak erregistratzen eta katalogatzen jardun dugu. Guztira, 65 titulu (eta 2.800 ale baino gehiago) erantsi zaizkio hemerotekari 2015ean. *Uzturre* hemerotekako biltegiak 500 metro linealetik gorako edukiera dauka eta, dagoeneko, 6.855 titulu eta 176.677 ale gordetzen dira bertan.

Beste alde batetik, *Hustuketa* izeneko agiritegian (hainbat argitalpenetan, besteak beste, *Euzkadi*, *Alderdi*, *Hermes* eta *Deian* informazio historikoari buruz argitaratutako artikulua jasotzen dituen) 5.155 erregistro jasota daude.

Praktiketako unibertsitate-ikasleek egindako lanak

Praktiketako jarduera *Uzturre* hemerotekari lotzen zaio eta hainbat ikasle aritzen dira lan horretan ikasturterik ikasturte. Ikasleen zeregin nagusiak bi dira: XIX. mendearen amaieratik aurrera, euskal prentsa abertzalean ageri diren euskal abertzaletasunaren inguruko egitura politiko eta sozialari buruzko aipamen guztiak bilatzea eta datutegi informatiko batean jasotzea. 2015eko ekitaldian, *Bizkaitarra* (1893-1895), *Baserritarra* (1987), *El Partido Carlista y los Fueros Vasco-Nabarro* (1897) eta *El Correo Vasco* (1899) argitalpenetan topatutako **750** albiste erregistratu dira.

7.1.4. WEB zabalkundea

Ekitaldi osoan lortutako datuak –aurreko ataletan aipatu ditugunak– (agirien deskribapena), Sabino Arana Fundazioaren webgunean txertaturik dagoen datutegi bateratu batean sartzen dira aldiro-aldiro. Horrela, gure biltegieta gordeta dauden liburu, aldizkari eta egunkariei buruzko informazioa eguneratzen da eta, aldi berean, euskaldunon historiari buruz argitaratzen diren artikulua jasotzen dira.

2015ean, zeharo aldatu da datutegian kontsultak egiteko modulua eta, aldaketari esker, ikertzaileek eta norbanakoek errazago lor dezakete informazioa, emaitzek datu gehiago eskaintzen dituztelako eta, gainera, lehen baino hobeto antolatuta.

7.1.5. Sabino Aranaren 150. urteurrena

Ondoko lanak burutu dira:

- Agiriak hautatu dira erakusketa antolatzeko.
- Testuen zuzendu dira.
- Webgunea begiratu da.
- Harremanetan izan gara beste erakunde batzuekin Sabino Aranaren dokumentazioan ageri diren irudiak lagatzeko helburuz, webgunean txertatuko baitira: Bizkaiko Foru

Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Sancho el Sabio Fundazioa, Nafarroako Unibertsitatea, Euskaltzaindia eta Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboa.

7.2. Kontsultak

2015eko ekitaldian, informazioa emateko 313 eskaera jaso dira Euskal Abertzaletasunaren Agiritegian, gehienbat, e-postaz (100) eta telefono bidez (93). Esan beharra dago gero eta kontsulta gehiago egiten dela agiritegian bertan (86 kontsulta, iazko ekitaldian baino % 30 gehiago). Bestalde, gero eta eskaera gutxiago jasotzen dugu (34) gure webgunean eskuragarri dauden inprimakien bidez.

Oroimen Historikoaren inguruko informazio-eskaerak nagusi dira: gerraren, erbestaldiaren edo norbanakoen (gudariak, presoak, desagertuak eta abar) ingurukoak. Aipatutakoen familiartekoek, erakundeek, hedabideek zein komunikazio-enpresek egin ohi dituzte eskaerak, informazioa ikerlan, urtemuga, proiektu, lan zehatz eta abarretan erabiltzeko.

Norbanakoek egindako eskaeren kopurua iazkoaren antzekoa izan da; unibertsitate-arlotik (irakasleak, ikasleak, tesiak...), kultura-erakundeetatik eta enpresetatik (ekoiztetxeak) egindakoek, berriz, gora egin dute. Hedabideetatik (prentsa), Euzko Alderdi Jeltzalearen egituratik eta Fundaziotik bertatik egindako eskaerek, ostera, behera egin dute.

Norbanakoak	193	Gizartea, Kultura eta Administrazioa	23
Unibertsitatea / Ikerkuntza	58	Deia	8
EAJ-PNV	14	Enpresak / Ekoiztetxeak	17

1992ko urritik hona, 5.131 kontsulta jaso dira guztira agiritegian.

7.3. Historia eta dokumentazioari buruzko aholkularitza: lankidetzak, solasaldiak, hitzaldiak, jardunaldietako parte-hartzea, argitalpen-kontrola, webgunearen bidezko zabalkundea

Lankidetzak

Hiru sarrera prestatu dira (Luis de Guezala) Bilbaopediarentzat (Bilbori buruzko webgune monografikoa): *Sabin Etxea*, *Ikurriña* eta *Euskeldun Batzokija*.

Hainbat artikulu prestatu dira DEIA egunkariarentzat, *Historia de los Vascos* atalean argitaratzeko. Luis de Gueزالak koordinatu ditu eta, guztira, **45** artikulu argitaratu dira 2015ean.

Gainera, hitzaldiak eman dira eta jardunaldietan nahiz hedabideetan parte hartu dugu (26 saio).

7.4. Norbanakoen dohaintzak

2015eko abenduaren 31 arte, 1.439 dohaintza jaso dira agiritegian ekitaldiaren barruan. Aipatutako ekitaldian, 59 pertsonak egin dizkiote dohaintzak Euskal Abertzaletasunaren Museoari. Gainera, 59 pertsona horietatik, 21 emaille berriak izan ziren.

7.5. Ikertzaileak

2015ean, 83 ikertzailek aztertu dituzte gure agiri-funtsak agiritegian bertan (aurreko ekitaldian baino % 35 gehiagok).

8.1. Urteko balantzea

2015eko ekitaldian, Sabino Arana Fundazioaren GOAZ MUSEUM – Euskal Abertzaletasunaren Museoaren jardura nagusiak ondokoak izan dira: argazki-funtsen katalogazioa, dekorazio-artei buruzko funtsaren berrantolaketa eta dohaintzan hartutako gai berrien erregistroa, inbentarioa eta katalogazioa.

Era berean, lanean jarraitu dugu hurrengo funtsak antolatzen, inbentarioan jasotzen eta katalogatzen:

- **Argazki-funtsa:** 2015ean jasotako 2.200tik gora argazki erregistratu, katalogatu eta “Sabino Arana Fundazioa” deritzon moldea txertatu diegu irudioi:
 - o Norbanakoek egindako dohaintzen funtsan gordetako argazkiak erregistratzea, katalogatzea, digitalizatzea eta irudioi moldea txertatzea.
 - o Erregistratutako irudien deskribapen fisikoa egitea eta kontrastea hobetzea.
 - o Identifikatzaile, egungo egoera, kopien kopuru eta beste ezaugarri batzuk inbentarioan jasotzea.
 - o Irudiak indexatzea, zeini dagokion testu-fitxaren arabera.
 - o Tamaina, egungo egoera eta abarren arabera, irudiak euskarri egokietan jartzea, argazki-albumetan gordeta eta hainbat tamainatako zorroetan –pH neutrodunak eta argazkiari egokitutakoak– sartuta.

Esan beharra dago Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Zientzien eta Komunikazio Fakultateko nahiz Filosofia eta Letren Fakultateko praktiketako ikasleek berebiziko lana egin dutela arlo honetan, ikasleek burutu baitituzte funts batzuetako argazkien digitalizazioa, deskribapen teknikoa eta irudiaren trataera. Horrez gain, ikasleek kartel-funtsa antolatzen, argazkiak egiten eta deskribapen teknikoak lantzen jardun zuten.

- **Arte Grafikoak:** eranskailuen bildumarekin egin bezala, inbentarioa lantzen jarraitu dugu, sarrera berriak txertatu dira eta horiek erregistratu, argazki digitalak erabiliz.

Atal honetan, Filosofia eta Letren Fakultateko praktiketako ikasleek jardun dute lanean. Guztira, 2.100 erregistrotik gora jaso dituzte inbentarioan aipatutako ikasleok.

- **Arte Grafikoak. Eranskailuen atala:** erregistro berriak katalogatzen jarraitu dugu.
- **Dekorazio Arteak:** 300 objektu baino gehiago berrantolatu eta berriro kokatu ditugu. Arte Ederretako Fakultateko praktiketako ikasleek jardun dute zeregin horietan. Gainera, gai berriak erregistratu eta katalogatu dira.

- **Ehun-funtsa:** 2015eko urtearen barruan gure erakundera heldu diren ale berriak aztertu, inbentarioan jaso eta katalogatu dira. Horiek guztiak Bilboko egoitzan gordeta daude dagoeneko.

Dagoeneko deskribatuta eta inbentarioan jasota dauden funtsei dagokienez, esan behar da, 2015eko ekitaldian, GOAZ MUSEUM – Euskal Abertzaletasunaren Museoak 310 kontsultari erantzun diela eta argazki-funtsean jasotako 300 irudi baino gehiago balitu direla Facebook eta Instagram sare sozialetan argitaratzeko.

Gaur egun, lanean dihardugu 2015ean jasotako dohaintza esanguratsuak inbentarioan jasotzen eta euskarri egokietan paratzen. Ildo horretan, nabarmendu behar dira funts guztietan jasotako gaiak.

Aldi baterako erakusketei gagozkiela, 400 elementu baino gehiago laga ditugu gai askotariko erakusketetan ipintzeko, hainbat erakunderekin elkarlanean:

- **Aranzadi Zientzi Elkarte:** “Larrinagako kartzela. Oroimena preso” izeneko erakusketan.
- **ELKANO Kultur Elkarte:** “Oraindik Atzo” izeneko erakusketan.
- **Durango Arte eta Historia Museoa:** “Valentin M^a Zubiaurreren heriotzaren mendeurrenean” izeneko erakusketan.
- **Euskal Herria Museoa:** “Bartzelonako Gernikak 1937” izeneko erakusketan.
- **San Telmo Museoa:** “Mendia” izeneko erakusketan.

Bestetik, hainbat pieza laga dizkiegu ondoko museo eta erakundeei:

- **Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa**
- **Euskal Poliziaren Museoa**
- **Museo de l’Exili**
- **Eusko Legebiltzarra**

Beste alde batetik, 2015eko ekitaldian, gure eskaintza didaktikoa handitu da eta hiru motatako tailer didaktikoak antolatu ditugu, batetik, Museoen eguna jorratzeko, bestetik, sormena lantzeko eta, azkenik, oroimen historikoa berreskuratzeko. Tailerren hartzaileak adin askotako ikasleak izan dira.

8.2. Kontsultak eta lankidetzak

2015eko ekitaldian, GOAZ MUSEUM – Euskal Abertzaletasunaren Museoak 310 kontsulta baino gehiago jaso ditu eta 1.700etik gora irudi igorri dizkie hedabideei, erakundeei, ekoiztetxeei, ikertzaileei eta norbanakoei.

8.3. Ikastaro didaktikoak

Ganbera iluna

Museoen Nazioarteko Egunean, hots, maiatzaren 18an, “Museoak gizarte jasangarri baterako” lelopean, Sabino Arana Fundazioaren Goaz Museum - Euskal Abertzaletasunaren Museoak doako ikastaro didaktikoa antolatu zuen iraunkortasuna eta ingurumenarekiko begirunea lantzeko.

Horretarako, kartoizko kutxa birziklagarria, margoa, paper begetala, lupa bat eta etxeko gaiak erabiliz, neska-mutilek esperimentu txiki bat egin zuten argazki-kamera bat zelan dabilen jakiteko.

Goian aipatutako leloa baliatuz, agerian jarri nahi izan genuen museoek duten eginkizun garrantzitsua jendea sentiberatzeko orduan, gizarte ez horren xahutzailea, solidarioagoa eta natura-baliabideak begirune handiagoz erabiltzen dituen sustatzeko helburuz. Lehen Hezkuntzako ikasleak izan ziren ikastaro horren hartzaileak.

Ham Beads

Ikasle txikientzat antolatutako ikastaro horretan, neska-mutilen sormena lantzen da modu jostagarrian. Hiru dimentsioko irudiak sortuz eta horretarako ereduak erabiliz, neska-mutilek sormena askatu eta era askotako eite eta irudiak landu zituzten, besteak beste, Gabonetako objektuak eta ikurrak.

Gabonetako postalak

Antton Irusta filologo, ipuin-kontalari eta idazleak eman zuen Goaz Museum - Euskal Abertzaletasunaren Museoak antolatutako ikastaro hori Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat.

Ikastaro horren bidez, gure oroimen historikoari heldu eta egungo teknologia berriak alde batera utzi nahi izan genituen: sms-ak, whatsapp-ak, Facebook, Twitter eta abar luzea. Museoan gordeta dauden 30eko hamarkadako Gabonetako postalak baliatuz, ikastaroak helburu izan zuen gaurdaino iraun duen elementu bat, ukigarria eta eskuz idatzitakoa, berreskuratzea, tradizioari oratuz, elementu horretan erantsita geratzen baitira bidaltzailearen arrastoa eta zirrara, haren idazkera, haren sentimendu eta nahiak, berba gutxi batzuetan.

Beste alde batetik, “**Goazen Gudari Danok**” erakusketaren osagarri, bisitaldi gidatuak antolatu ditugu erakusketa ikusgai egon den udalerrri guztietan.

8.4. Aldi baterako erakusketak eta maileguak

600etik gora objektu eta gai laga edo maileguz eman dira ondoko erakusketetan erabiltzeko:

- **“Goazen gudari danok”**. Antolatzaileak: Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Elgoibar, Bilbo, Santurtzi, Erandio, Mungia eta Leioako udalak
- **“Larrinagako kartzela. Oroimena preso”**. Antolatzailea: Aranzadi Zientzi Elkarteak.
- **“Oraindik Atzo”**. Antolatzailea: ELKANO Kultur Elkarteak.
- **“Bartzelonako Gernikak 1937”**. Antolatzailea: Euskal Herria Museoa.
- **“Mendia”**. Antolatzailea: San Telmo Museoa.

8.5. Norbanakoek GOAZ museoari egindako dohaintzak

2015eko ekitaldian, 150 pieza, 300 irudi (horietako asko argitaratu gabekoak) eta 200 kartel baino gehiago jaso dira GOAZ MUSEUM - Euskal Abertzaletasunaren Museoan, hogeita hamar bat norbanakok eta erakundek egindako dohaintzei esker.

Sabino Arana Sarien 2014ko ekitaldia



2015eko urtarrilaren 26an, 150 urte bete ziren Sabino Arana Goiri, euskal abertzaletasunaren aita, jaio zenetik. Urteurren hori aintzat hartuta, Sabino Arana Fundazioak Sabino Arana Sarien XXVI. edizioa ospatu zuen urtarrilaren 25ean. Kultur ekitaldi horretan, gorazarre egin zitzairen elkartasunari, kulturari, enpresa-erantzukizunari lotutako arrakastari eta Euskadiko nazioarteko proiektuari.

Eusko Jaurlaritzako lehendakari Iñigo Urkullu buru izan zuen 2015eko ekitaldian, **Joaquín Achúcarro** piano-jotzaileak, **LINCE-La Industrial Cerrajera** euskal enpresak, **Arantzazu Ametzaga** idazleak eta liburuzainak, **Euskadiko Odol Emaileen Elkarteak** eta **Herri Kirolen Euskal Federazioak (Sokatira)** jaso zuten saria.

Hasiera-ekitaldian, Sabino Arana Fundazioko lehendakariak, Juan Mari Atutxak, Sabino Aranaren jaiotzaren 150. urteurrena ekarri zuen gogora eta honakoa nabarmendu zuen: “gizon hark XIX. mendearen amaieraren eta XX. mendearen hasieraren arteko sasoian ereindako haziak fruituak ematen dirau 150 urte geroago”.

“Behin ez, mila biderrez esango dugu: Euskadi nazioa da. Nazio anitza, irekia eta kohesionatua; berbako nazioa, zuzena eta laguntza emateko prest dagoena; nazio garatua, berritzailea eta sortzailea; nazio askea, bere burua gobernatzeko gauza dena, bake-giroan. Horrelakoa da geuk gura dugun Euskadi. Egundaino eraiki dugun eta, aurrerantzean ere, egunetik egunera guztion artean eraikiko dugun nazioa, gizon-emakume guztion lana eta ahalegina dela bide”, baietsi zuen Atutxak.

Sabino Arana Fundazioko lehendakariak bost saridunen balioak jorratu zituen hitzaldian: elkartasuna, sormena, berrikuntza, euskaldunon erbesteratze politikoa eta euskal nortasunaren defentsa, nortasun horren hedapena atzerrian... Atutxak azpimarratu zuen legez “balio horiei guztiei esker, euskal nazioa Basque Country bilakatu zaigu gaur egun mundu osoan”.



Joaquín Achúcarro lehenengoa izan zen agertokira igotzen saria jasotzera. Achúcarro nazioarteko ospe eta sona handiena duen garai guztietako euskal piano-jotzaile entzutetsuenekoa dugu. Saridunak eskerrak eman zituen hartutako sarietatik eta ondoko hitzaldiaren gehiena eskaini zion maisuak daukan amets bati: Bilboko alkate ohi Iñaki Azkunari monumentua egitea hirian.

"Berriro ere ekarri dut hona nire ametsa, Iñaki Azkunari monumentua egitearena, alegia. Izan ere, Iñaki Azkunak Bilbon monumentu bat izatea merezi baino, Bilbok Iñaki Azkunari eskainitako monumentu bat behar du", adierazi

zuen eta, aldi berean, 10 eurokoa utzi zuen atrilean diru-bilketa hasteko xedez.

La Industrial Cerrajera edo Lince deritzon enpresaren izenean, **Santiago Ugaldea** presidenteak Elorrioko enpresa horren 83 urteko ibilbidea laburbildu zuen. LINCE, gaur egun, aurrendaria da sarrailagintza-sektorean eta ekoizpenaren % 30 esportatzen du Europara, Marokora, Egiptora, arabiar herrialdeetara eta Latinoamerikara.

“Gure nortasun-ikurrik behinenak berrikuntza, produktu berrien garapena eta inbertsioa dira; nolanahi ere, Espainiako merkatuaren gainbehera dela eta, ahaleginak eta bi egin behar izan ditugu esportazioa areagotzeko eta, gauzak ondo bidean, % 50era iritsiko gara etorkizun hurbilean. Egoeraren okerra gainditzen ari gara, batik bat, gure esportazioen bolumena handitu delako, eta horri esker, krisialdiaren aurreko salmenta-kopurueta itzuliko gara eta horrek eragin onuragarria izango du Elorrioko egoitzan aritzen diren langileentzat” adierazi zuen.



Horren ondotik, **Arantzazu Ametzaga** idazlea eta liburuzaina igo zen agertokira. Ametzaga euskal erbesteratu politikoen isla bikaina da; dena dela, erbesteraldian, harrera beroa aurkitu zuen itsasoz bestaldeko lurralde urrun batean, baina zuztarrei zintzo loturik, jaioterrira itzuli zen egun batean.

“Euskal diasporako alaba naiz” esaten hasi zuen hitzaldia. “Gerra-gatazkak direla eta, deportazioa pairatu behar izan duen familia baten laugarren belaunaldikoa naiz. Nire

aurretikoek irakatsi zidaten Euskadi, ideala izateaz gain, lan gogorra dela. Baina berezkoa izan arren, lehendik ezagutu gabeko herrialdea elkar aurkitzea ere lan nekeza da, bizipen bikaina izan arren” azpimarratu zuen.



Arantzazu idazle emankorra da eta Eusko Legebiltzarreko liburutegi bikainaren sortzailea dugu, bere esanetan, “liburutegi guztien amaren” sortzailea. Hain zuzen ere. Venezuelan, Latinoamerikako kultura leheneratzeko xedez, Kennedy presidentearen Garapenerako Aliantza egitasmoari lotutako liburutegi pilotua eraiki zuen. “Kennedyk esan zigunez, olerkiez dakiten politikariak eta politikaz dakiten olerkariak baleude, mundua bizitzeko leku hobea izango litzateke” gogorarazi zigun Ametzagak.

Horrez gain, idazleak azaldu zuen “nire herriko jendearen ariman arakatzen ahalegindu naiz. Historiako gertaera esanguratsuetan arakatzen, Amerikaren gaineko ikuspegia erabiliz euskaldun gisa edo Euskadiren gaineko ikuspegia erabiliz amerikar gisa”.

Sabin Urcelayk, Euskadiko eta Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteko lehendakariak, Bizkaiko Odol Emaileen Elkarteko lehendakaria, **Álvaro Larrea**, eta Arabako Odol Emaileen Elkarteko lehendakaria, **José García Gallastegui**, ondoan zituela, honakoa nabarmendu zuen: “gaur egun, 60.000 lagunek baino gehiagok ematen dute odola maiztasunez, eta horri esker, gure erkidegoa lehenengoa da biztanleko odol-emateen kopuruari dagokionez”.

“Odol-emate bakarra edo odol-emaile bakarra musika-nota bakana edo liburu soltea lirateke, baina odola emateko sarea egituratzen denean eta sare hori herri baten kulturen sustraitzen denean, liburuek liburutegi batean edo notek sinfonia batean daukaten garrantzi eta sendotasun berdina hartzen du” baieztatu zuen.



Beste alde batetik, Urcelayk EAEko Transfusio eta Giza Ehunen Zentroaren balioa azpimarratu zuen, beraren esanetan “azpiegitura aurrendaria baita antolakuntza, teknologia eta ikerkuntzari dagokienez”.

Euskadiko Odol Emaileen Elkarteko lehendakariak eskerrak eman zizkien odol-emaile guztiei hitzaldiaren amaieran: “Sari hau, segurutik, partituen izango da Sabino Arana Fundazioak

eman dituen sari guztien artetik; izan ere, ehunka mila pertsona etorri da gurera azken urteotan odola maiztasunez ematen. Odol-emaile horiei guztiei zorionak eman gura dizkiet bihotz-bihotzez eta gure esker on zintzoa erakutsi nahi diet”.

Amaitzeko, orain dela 40 urte idazten hasi zen liburu bateko azken lerroak paratu zituen Herri Kirolen Euskal Federazioak joan den urtean: aipatutako federazioa eskubide osoko kide legez sartu zen Nazioarteko Sokatira Federazioan (TWIF). Hortaz, Sokatirako euskal selekzioak nazioarteko txapelketetan parte hartzen du modu ofizialean, “Basque Country” izenez.



“Herri Kirolen Euskal Federazioko lehendakariak, **Bernardo Ureta Peña Urpek** “izerdiz eta malkoz beteriko” azken berrogei urteak erabili zituen ahoan eta bidean geratu diren sokatirako taldeak aipatu zituen. “Horregatik, hemen jasotzen ari garen saria talde horientzat guztientzat ere bada” azpimarratu zuen. Bestalde, Urpek honakoa adierazi zuen: *“gure nahia ez da sekula izan ikurrina eduki edo ikurrina ikustea inoren gainetik... Gure nahia beti izan da gure ikurrina gainerako banderen parean ikustea nazioarteko txapelketetan, ez beste inoren gainetik, ezta beste inoren azpitik ere”*.

Gainontzeko euskal federazioak bide beretik abiatzera gogatu zituen Urpek eta, amaitzeko, ondokoa esan zuen: “liburu berria idazten hasi gara, eta liburu berri horren izenburua letra larriz idatzita dago. Gure nortasunaz, gure izerdiz, gure kulturaz, gure ikurrinaren kolorez idatzita dago. Hona hemen Euskal Herriko historian izan den lehen euskal selekzioa, hona hemen BASQUE COUNTRY SELEKZIOA”.

Herri Kirolen Euskal Federazioko lehendakariarekin batera, Bizkaiko Gaztedi eta Goiherri taldeetako ordezkariak eta Gipuzkoako Mutriku taldeko ordezkariak igo ziren Arriagako agertokira. Hiru talde horietako ordezkariak modu ofizialean parte hartu zuten lehenengo aldiz nazioarteko txapelketa batean, Euskal Herriaren edo Basque Country-ren izenean, lur gaineko munduko txapelketan, Wisconsinen, 2014ko abuztuan. Ordezkarien artean, besteak beste, **Javier Urresti, Mikel Agirre, Patxi Ituarte, Eder Bergara, Uxue Ansorregi, José Antonio Goirigolzarri Litri, Batirtze Ispizua, Erika Julieth Rojas, Kepa Unibaso, Andoni Cabrejas, José Luis Orozko, Diego Ugarte, Ekaitz Azpitarte, Abel Onandi, Cristina Bollado** eta **Jone Zarraga** izan ziren.

Iñigo Urkullu lehendakariak gain, politika, kultura eta gizarte arloetako ordezkari ugari izan ziren sariak banatzeko ekitaldian, besteak beste, EAJ-PNV alderdiaren Euzkadi Buru Batzarreko lehendakaria, Andoni Ortuzar; Bilboko alkatea, Ibon Areso; Bizkaiko ahaladun nagusia, José Luis Bilbao; Eusko Legebiltzarreko burua, Bakartxo Tejeria; Miguel Ángel Lujua (Confebask-eko presidentea), Itxaso Atutxa (EAJ-PNV alderdiaren Bizkai Buru Batzarreko

burua), Miguel Madariaga, Rosa Miren Pagola, Jon Ortuzar, Pedro Aurtenetxe, Oriol Roch, Begoña Errazti, Margarita Uria...

Reyes Prados kazetariak maisutasun handiz aurkeztu zuen sari-banaketa eta **Kamerata Leioak**, Leioako Orkestra Gazteak, bikain girotu zuen ekitaldia.

Sabino Arana Fundazioaren izaera anitzari esker, hainbat jarduera antolatu ditu beste erakunde eta antolakunde batzuetako ordezkariekin batera, fundazioak berak antolatutako ekimenez gain.

2015. urtean, honako hauek ditugu aipagarrienak:

- Martxoan, Euskadiko Galiziako Etxeen *Irmandade* deritzon antolakundearekin elkarlanean, Alfonso R. Castelao idazle, marrazkigile eta nazionalismo galiziarren sortzaileari omenaldia egin genion. Omenaldi horretan, lore-eskaintza egin zen Galiziako politikariari eskainitako monumentuaren aurrean Europa parkean, Bilboko Txurdinaga auzoan.
- Otsailaren 4an, Adiskidetasun Basoa izeneko ekitaldian parte hartu genuen. Seminario eraikinaren zuzendaritzak abian jarritako ekimen horrek 70 enpresa eta erakunde baino gehiagoren babesa jaso du.
- Apirilaren 19an, igandearekin: omenaldia gudariei, Elgetan.
- Beste alde batetik, hainbat erakunde, agintari eta Gerra Zibilean bizirik atera ziren lagun batzuekin batera, Gernikako bonbardaketan hildakoen omenez apirilaren 26an egindako ekitaldian parte hartu genuen.
- Martxoaren 10ean: Euzkadi'ko Gudontzidiaren Laguntza'ko Ontzitaldea osatu zuten gudariei egindako omenaldian parte hartu genuen Matxitxako lurmuturrean. Matxitxako elkarteak antolatu zuen ekitaldia.
- Ekainaren 5ean, Bilbo Zaharra euskaltegiak antolatzen duen “Irakurketa jarraitua” deritzon ekimenaren 8. edizioan parte hartu genuen. Saio horretan, Joseba Sarrionandiaren irakurketari ekin genion.
- Ikastetxeekin elkarlanean, hezkuntza-tailerrak eta erakusketak antolatuko ditugu, ume-gazteek gure historia eta gure ingurunea hobeto ezagut ditzaten.
- Ekainaren 21ean, igandearekin, “Aterpe 1936” deritzon monumentuaren 9. urteurrena ospatu genuen.
- Tadeusz Kosciuszki Fundazio Historikoko kideak Sabino Arana Fundazioan izan ziren uztailaren 27an. Fundazio hori osatzen duten gizon-emakumeek Poloniako erresistentzian parte hartu zuten nazismoaren eta estalinismoaren kontra eta, gaur egun, oroimen historikoa berreskuratzeko lanetan dihardute.
- Beste jarduera batzuk.

- Mezu@

2015eko ekitaldian, lanean aritu gara fundazioaren Mezu@ izeneko berripaperak harpidedun gehiago izan ditzan. Berripaper hori geuk antolatutako jarduerak eta fundazioak parte hartzen dueneko jarduerak zabaltzeko baliatzen dugu.

- Euskadiko historiari lotutako politika, kultura, kirol, gizarte eta beste arlo batzuetako gertakizunen urtemugak eta Sabino Arana Fundazioaren jarduerak zabaltzeko ditugu hainbat sare sozialetan (Facebook, Twitter eta Instagram).
- Artikuluak idatzi ditugu DEIA egunkariarentzat, euskal historiari eta antropologiari lotutako askotariko gaien inguruan.
- Historia ikertu eta zabaltzeko lan eta argitalpenetan parte hartu dugu.
- Mahai-inguruetan, liburuen aurkezpenetan, jardunaldietan, hitzaldietan, hedabideetako saioetan eta abarretan parte hartu dugu.

Beste alde batetik, esan beharra dago webgunean eskaintzen diren inprimakien bitartez jasotako galdera eta eskaeren kopurua ere areagotu dela.

Sabino Arana Fundazioaren 2015eko jardueren programak bi gertaera gogoangarri kontuan hartu ditu ekitaldi honetan: alde batetik, 2015eko urtarrilaren 26an, 150 urte bete ziren Sabino Arana Goiri, euskal abertzaletasunaren aita, jaio zenetik. Sabino Aranak, Euzko Alderdi Jeltzalea sortu ez ezik, euskal nazio modernoaren oinarriak finkatu zituen; eta denboraren poderioz, egitasmo hark alderdien mugak gainditu zituen eta, ondorioz, beste ildo politiko batzuek ere eurenganatu zuten, bai eta, zati batean, behintzat, euskal nazioaren izaera ukatzen dutenek ere.

Beste alde batetik, Bigarren Mundu Gerraren amaieraren 70. urteurrena ospatu genuen apirilean. Euskaldunok —Gernika batailoi edo gudarostea dela eta— Pointe de Graveko (Frantzia) borrokaldietan izan ziren, aipatutako mundu-gerra hori amaitu baino apur bat lehenago.

Atal honetan aipatutako bi gertaera horiek garrantzi handia izan dute Sabino Arana Fundazioak 2015eko ekitaldian antolatu dituen jardueretan: omenaldiak Gernika batailoiko gudariei, hitzaldiak, mintegiak, erakusketak, dokumentazio-lanak... Sabino Arana Fundazioko Agiritegi eta Museoko kideek horietan guztietan jardun eta lan egin dute era koordinatuan.

Gogoeta eta eztabaida mintzagune edo tribunari dagokionez, XXI. mendean puri-purian dauden gai eta auzien inguruko azterketa, eztabaida eta hausnarketa landu ditugu, besteak beste: egitate nazionalak Europako eraikuntzan, demokrazia, subiranotasuna eta globalizazioa, Europako Zuzenbidea eta oinarrizko eskubideak ETA erakundearen amaieraren aurrean, garapenerako nazioarteko lankidetzaz-joera berriak, Euskal Herriko tradiziozko kultura eta haren bilakaera, gazteria eta gazteen jarrerak teknologia berrietan, Ekonomi Ituna eta Kupoa...

Era berean, HERMES pentsamendu eta historia aldizkariaren hiru zenbaki argitaratu dira ekitaldi honetan.

Beste erakunde eta ntolakunde batzuekiko harremanen-ingurumarian, 2015ean aurreikusitako hainbat ekitalditan parte hartu dugu (Euskadiko Galiaziako Etxeen *Irmandadea*, beste fundazio batzuen jarduerak, udal, aldundi, eta ikastetxeek antolatutako jarduerak, Europar Demokraten Alderdiak eta Europar Demokraten Institutuak antolatutako jarduerak...).

Aurrekoez gain, Sabino Arana Sarien XXVI. Ekitaldia ospatu genuen.

Jarduerak horiek guztiek sekulako garrantzia ematen diote Sabino Arana Fundazioari eztabaidagune gisa. Gogorarazi behar dugu Sabino Arana Fundazioak egundaino egindako

ibilbidean gizarte anitzaren aintzatespena eta laguntza jaso dituela, bai gizartearen beraren aldetik, bai politikarien aldetik.

Gure deialdien izaera irekia dela eta, euskal gizarte osoa dugu gure jardueren onuradun. Adibide argigarri bat ematearren, gogoeta eta eztabaida sustatzen dituen mintzaguneak antolatutako hitzaldietan, batez beste, 100 lagunek parte hartzen dute; Sabino Arana sarien banaketa-ekitaldian, 1.000 lagun inguru izaten dira; eta erakusketak, antolatzen direneko lekuaren eta iraupenaren arabera, 800-5.000 lagunek ikusten dituzte.

Kultura zabaltzeko plangintza oparo hau Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan eta Euskal Herriko gainerako herrialdeetan garatzen da, eta jarduera horien guztien berri jasotzen da hedabideetan.

Beste alde batetik, nabarmendu behar dugu Sabino Arana Fundazioko kideok neurriak hartzen ditugula euskararen erabileraren garapena eta normalizazioa ziurtatzeko helburuz, gure herriaren kultur ondarearen funtsezko elementua delakoan baikaude.

Era berean, emakumeen parte-hartzea bultzatzen dugu fundazioak antolatzen dituen jarduera guztietan eta genero-berdintasuna sustatzen dugu. Emakumeen eta gizonen arteko Berdintasun Legeari jarraiki, jarduerak garatzen dituenen, fundazioak beharrezko neurriak ahalbidetzen ditu berdintasun-printzipioa eraginkortasunez betetzeko eta printzipio hori funtsatzen duten balioak eta jardunbideak sustatzen ditu. Horrela, arau hori gogoz betetzen ahalegintzen gara fundazioaren erabakimen-organoetan —Patronatuaren Batzordea— zein gure gonbidatu eta parte-hartzaileen artean.

Txostenean emandako kopuru eta datu guztietan oinarri harturik, gure uste apalean, arrakastaz bete ditugu ekitaldiaren hasieran aurreikusitako helburuak.

